Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko otsailaren 6a, asteartea — 26 — Martes, a 6 de febrero de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTATU NAGUSIA

### Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

*Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako lurrade historikoan finkatuta dauden tokiko garapen agentziei zuzendutako diru laguntzen 2018ko deialdia, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaietan.*

Diputatu nagusiak 2018ko urtarrilaren 29an honako foru dekretua eman du:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren helburu estrategikoetako bat da Gipuzkoan herritarren arteko bizikidetza finkatzea. Helburu hori lortzeko planteatzen duen proiektu estrategikoa da kultura politikoko programa bat garatzea eta herritarren jarrera, balio eta portaera demokratikoetan sakontzea.

Testuinguru horretan, 2016. urtean diru laguntza programa bat onartu zen, lurraldeko udalei zuzendua, udal proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaietan, giza eskubideen ikuspegitik, elkar ezagutzeko espazioak erraztuz eta Gipuzkoan gaur egun dagoen aniztasuna ikusgarri eginez.

2017. urtean programa hori aldatu zen, gai honetan langile kualifikatuak dituzten izaera publikoko toki erakundez osatutako tokiko garapen agentziek ere bertan parte har zezaten, esparru horretan duten dinamismo eta interesarengatik, aniztasun espazioak sustatu ditzaten beren eskualdeko udalen batean.

Aipatu diru laguntzen programa jarraitzea beharrezkotzat jotzen denez, foru dekretu honen bidez 2018. urteari dagokion deialdia onartzen da, 130.000,00 euroan gehienez.

Ondorioz, diputatu nagusiak

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Diputatuen Kontseiluak 2017ko uztailaren 26ko bileran onartutako 2017-2019 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan sartzea Gipuzkoako udalei nahiz Gipuzkoako Lurrade Historikoan finkatuta dauden tokiko garapen agentziei zuzendutako diru laguntzak, proiektuak gauzatzeko aniztasuneko bizikidetzaren gaietan.

*Bigarren.* Onartzea diru laguntza horien 2018ko deialdia, deialdia foru dekretu honen eranskinean jasotzen da.

*Hirugarren.* Baimentzea ehun eta hogeita hamar mila euroko (130.000,00) gastua, ondorengo kontu sailen kargura:

1.0140.400.461.01.01.2018: 100.000 €.

1.0140.400.461.03.01.2018: 30.000 €.

Foru dekretu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek foru dekretu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donos-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DIPUTADO GENERAL

### Dirección General de Convivencia y Derechos Humanos

*Convocatoria de 2018 de las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias de desarrollo local radicadas en el territorio histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.*

El Diputado General, con fecha de 29 de enero de 2018, ha dictado el siguiente decreto foral:

La Diputación Foral de Gipuzkoa tiene como uno de sus objetivos estratégicos consolidar la convivencia ciudadana en Gipuzkoa, y para alcanzar este objetivo se plantea como proyecto estratégico desarrollar un programa de cultura política y profundizar en las actitudes, valores y comportamientos democráticos de la ciudadanía.

En este contexto, en 2016 se aprobó un programa de subvenciones destinadas a ayuntamientos del territorio para la realización de proyectos municipales en materia de convivencia en la diversidad desde un enfoque de derechos humanos, favoreciendo así espacios para el mutuo conocimiento y visibilizando toda la diversidad existente hoy en día en Gipuzkoa.

En 2017 se modificó dicho programa para que tomaran parte igualmente las agencias de desarrollo local constituidas por entidades locales de carácter público que cuenten con personal cualificado en la materia, dado su dinamismo e interés en este campo a fin de que promuevan también espacios de diversidad en alguno de los municipios de su comarca.

Considerando necesario continuar con el citado programa de ayudas, mediante el presente decreto foral se aprueba la convocatoria correspondiente al año 2018 por un importe máximo de 130.000,00 euros.

En consecuencia, el Diputado General

RESUELVE

*Primero.* Incluir en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 (PES), aprobado por el Consejo de Gobierno Foral en sesión de 26 de julio de 2017, las subvenciones destinadas a ayuntamientos guipuzcoanos y a agencias de desarrollo local radicadas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la realización de proyectos en materia de convivencia en la diversidad.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria 2018 de dichas subvenciones, que se acompaña al presente decreto foral como anexo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de ciento treinta mil euros (130.000,00) con cargo a las siguientes partidas:

1.0140.400.461.01.01.2018: 100.000 €.

1.0140.400.461.03.01.2018: 30.000 €.

El presente decreto foral es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer contra el mismo recurso contencioso–administrativo ante los Juz-

EK\CV GAO-I-2018-00670

tiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, interesatu partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko diputatu nagusi honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2018ko urtarrilaren 30a.—Ander Arzelus Aramendi, Diputatu Nagusiaren Alorraren idazkaritzako burua.

(670)

gados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, las personas interesadas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este diputado general, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 30 de enero de 2018.—El jefe de la Secretaría del Área del Diputado General, Ander Arzelus Aramendi.

(670)

EK\CV GAO-I-2018-00670

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra
Diputación Foral de Gipuzkoa
Área del Diputado General

ESKAERA / SOLICITUD

*Aniztasunean bizikidetzaren udal proiektua / Proyecto municipal de convivencia en la diversidad*

| **Proiektua (UDALAK eta GARAPENERAKO AGENTZIAK)**<br>**Proyecto (AYUNTAMIENTOS y AGENCIAS DE DESARROLLO)** |
|---|
| Eskatzailea / Solicitante:<br><br>IFK / CIF: PK / CP:<br>Helbidea / Domicilio:<br>Harremanetarako pertsona / Persona de contacto:<br>Telefonoa / Teléfono:<br>Helbide elektronikoa / Correo electrónico:<br>Kontu korrontea / Cuenta corriente (IBAN) ES |
| Aitortzen dut ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta onuradun izateko arau hauetan aurreikusitako debekuetan eta gaitasungabetzen duten zirkunstantzietan: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa -12. artikulua-; 2015eko martxoaren 9ko 2/2015 Foru Araua, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa -26.3 artikulua-; eta, indarrean dagoen gainerako araudia. / *Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las incompatibilidades, prohibiciones y circunstancias inhabilitadoras de la condición de beneficiario previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de Subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en el artículo 26.3 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres, y en el resto de la normativa vigente.* |
| **PROIEKTUAREN IZENA / DENOMINACIÓN DEL PROYECTO:** |
| 1.- Proiektuaren helburuak / Objetivos del proyecto |
| 2.- Aurreikusitako jarduerak eta nork gauzatuko dituen / Actividades previstas y quién las realizará |
| 3.- Metodologia / Metodología |
| 4.- Giza Eskubideetan eta Aniztasunean Bizikidetzaren gaietan programen kudeaketaren izandako esperientzia (tokiko garapenerako agentzien kasuan) / Experiencia anterior en el desarrollo de programas en materia de derechos humanos y convivencia en la diversidad (para agencias locales de desarrollo). |
| 5.- Ebaluazio-adierazleak / Indicadores de evaluación |
| 6.- Egutegia / Calendario |
| 7.- Alderdi berritzaileak / Aspectos innovadores |
| 8.- Herritarrek parte hartzeko bitartekoak / Mecanismos de participación ciudadana. |
| 9.- Genero ikuspegia / Perspectiva de género |
| 10.- Hizkuntza ofizialen erabileraren planteamendua / Planteamiento del uso de las lenguas oficiales |

EK\CV GAO-I-2018-00670

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra

Diputación Foral de Gipuzkoa
Área del Diputado General

11.- Proiektua ondo baloratzeko beharrezkotzat jotzen diren beste informazio batzuk / Otras informaciones que se consideran necesarias para valorar adecuadamente el proyecto.

........................................................................................................................................................................................................

Erakunde edo pertsona eskatzaileak baimena ematen dio diru laguntzaren departamentu kudeatzaileari organo lagatzailearen ondorengo datuen kontsulta egin dezan / *La entidad o persona solicitante da su consentimiento al departamento foral gestor de la subvención para que consulte del órgano cedente los datos de:*

Zerga betebeharrak egunean dituela / *Cumplimiento de las obligaciones tributarias*:
Bai / Sí ☐ ☐ Ez / No, agiria eransten da / se adjunta certificado

Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela / *Cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social*:
Bai / Sí ☐ ☐ Ez / No, agiria eransten da / se adjunta certificado

EK\CV GAO-I-2018-00670